
Terroristar en poza

*

MARKOS ZAPIAIN

*

frantziar batek ganorazko filosofia bat plazaratzen duela-rik, berehala deitzen diote «terrorista»: halaxe zeritzon DescombeseK Kojèvenari; Sartrek ere anatema bera maizetan jasan behar izan zuen; Deleuze eta Foucault terrorista-tzat salatu zituzten Ferryk eta Renautek; azkenurreneko eskumikatua, Pierre Bourdieu dugu (*Le savant et la politique: essai sur le terrorisme sociologique de Pierre Bourdieu*, Jeannine-Ver-dès-Leroux-ek idatzia, ez naiz orain altxatuko argitaletxea eta begiratzera). Kasuotan, atentzioa ematen du salatzaileen eta salatuen arteko aldeak, obraren erakargarritasunari eta garrantziari dagokionez.

Clément Rossetek, alde batetik, Giza Eskubideak aldarrikatzen dituen pentsamoldeari deritzo terrorista, ikusiko dugu; eta, bestetik, berak sorturiko filosofiari.

Txarrenaren logika

Rosseten beraren filosofia terroristak txarrenaren logika bat nahi du gauzatu, baina ez da pesimista, baizik tragikoa. Pesimista, ikusi ostean mintzo da; terrorista, aldiz, ikustearen ezinaz. Pesimistak natura edo izatea bezalako zerbait badela onartzen du, eta exkaxa dela eransten. Zentzu honetan, txarrena onartzen du pesimistak. Baina zen-

Markos Zapiain Filosofia irakaslea eta *enbolike* euskal saio

tzu honetan, alegia, nolabaiteko zentzu bat, norabide bat, ordena bat, antza denez dagoeneko badauzkagunak, aintzat harturik. Zentzu txarra, norabide kaxkarra, ordena exkaxa, izate gaiztoa; baina zentzua, norabidea, ordena, izatea. Ezin inoiz aldatu ez hobetu, dio pesimistak, beti bezain txar iraungo du betirako. Pesimistak, horrenbestez, halabeharra ukatu egiten du nahitaez.

Terroristarentzat, berriz, emendatzen du Rossetek, ez dago mundurik; pesimistaren txarrak munduaren logika bat adierazten du; terroristarenak, berriz, pentsamendua-
ren logika bat, guztiz ezindua munduaz pentsatzeko.

Pozaren ganorazko gorazarreak, hortaz, ikuspuntu terroristaren eskatzen du; eta terroristak ez du lilurazko jakinduriaren bat xede, ez baikorraren zoriona; guztiz bestelakoa den zerbaiten bila dabil: alegia, eromen kontrolatua eta poza. Rossetek Pascalena jasotzen du: alde batetik, «hain beharrezkoa zaigu ero izatea, non ero ez izatea, bestelako eromen mota bateko ero izatea bailitzateke». Bestetik: «poza, poza, pozezko negarra».

Pozaren besarkada osoa

Rosseten esanetan, pozaren nahitaezko ezaugarrietako bat bere izaera totalitarioa da. Osoa da poza, ala ez da. Edota, zehazkiago (gero ikusiko duguna aurreratzearen), aldi berean erabatekoa eta nolabait ezdeusa. Bozkariotsuak, jakina, zehazki honexegatik edo horrexegatik poztan dela esango dizu. Ordea, baldin itaunka jarraitzen bagatzaizkio, berehala ohartuko gara beste horrek ere poztan duela, eta orobat harako hark, amaigabe. Haren gozamena ez da partikularra, baizik orokorra. Rossetek dioenez, pozak guztia onartzen du: piztu duen objektu zehatzaz haratago doa, oro hunkituz, dagoen guztiaren izaera dontsua pozarren aldarrikaraziz: poza guztiari eta edozeri ematen zaion besarkada itsu baten antzekoa baita, iraganari, orainari eta geroari baldintzarik gabe xuxurlaturiko baia.

Rossetek halako totalitarismo bitxiaren ondorioetako bat nabaritzen du: bozkariotsuaren berezitasuna dugu ez

dela gai, paradoxaz, bere pozaren zio zehatza azaltzeko, ezin duela azaldu zergatik dagoen pozik. Zeren honi buruz aldi berean larregi leukake esateko, eta deus ere ez. Esateko gehiegi: Sarriren ihesa, *Ruavieja* kafezko likorea, pattar eta uxualaz egina, Deleuzeren ahotsa, *Urrezko astoa*, amamaren kroketak, Mexikoko Merida eta Puerto Escondido, *Zoperna jenerala*, *Mr. Tambourine man*, Filosofia eskola zoragarri hura Zorroagan, amandazko bixkotxak, *Zazie metroan...*; horien guztien merezimendua laudatzen amaiturikotan, oraindik guztia luke esateko dagoenaren dohatsutasunaz —ia guztia.

Baina, zehazten du Rossetek, orobat esateko deus ere ez: zeren poza ezin baita ezein egitate zehatzez azaldu: alde batetik, alabantza osoa ezin delako egitate bakar batean bermatu; bestetik, ez dagoelako ezein egitate poza esplikaz lezakeenik, zeren pozak atzera egiten baitu beti azterketa-
ren eta gogoetaren eragin marruskatzaile eta erretzailearen aurrean. Izan ere, azterketa argi batek munduan dagoen edozer barregarri, eta aintzat hartzeko duinez, agerraraziko du, bere hauskortasunagatik eta bere izaera bukakor eta ezin hutsalagoagatik, denbora eta espazioaren neurriezintasun amaigabe izugarriaren aurrean.

Ordea —dio bozki Rossetek—, poza, bitxikiro, bada, ezerezetik eskegirik, euskarririk batere gabe, bada ere. Arrazoiaren objektiorik sendoena ere pozarren uzten du alde batera bozkalentziak; eragozpen argudioak bost axola zaizkio. Era ulertezinean dirau, harro: inongo labankadarik ezin du azkendu.

Rosseten esanetan, seta horrek poz sakon ooren eta bere kausa baino areago bere aitzakia den objektu zehatzaren arteko errotiko aldea azaltzen du. Poza beti da emendio, bere kausarekiko neurritz kanpokoa den efektu: amaigabe zabaltzen du zio zehatz batetik itxaron zitekeen onura. Emendio horixe berorixe da dontsuak ezin azal —are adieraz— dezakeena. Esateko gehiegiaren eta gutxiegiaren artean galdurik, bizitzaren onarpenak adierazezin dirau, eta onarpena azaltzeko eginahal guztiak nahitaez bilakatzin dira aldarri, edo marmar ulertezin eta entzunezin.

Esanikoaren aurrean, hiru objekzio nabaritzen ditu Rossetek:

Historaren zehazgabetasuna

Lehenbizikoa, pozaren zehazgabetasun hori, ezin kausa jakin batean mamitze hori, bat datorrela hitzez hitz bere aurkakoarekin: malenkoniara eta historara bultzatzen duen erromantikoen zehazgabetasunarekin hain zuzen. Ez da aski guztiz aurkakoak diren izpiritu jarrera bi ditugula ihardestearekin, antzekotasun formalaren nabarmenak azalpen bat eskatzen baitu; izan ere, dontsua bere pozaren zioa nahiz alaitzen duenaren izaera zehazteko gai ez den ber, malenkoniatsuak ere ez daki bere historaren zergatikoa, nahiz falta zaionaren izaera, zehazten; ez badu esaten bederen, Baudelairek bezala, malenkonia bere muina dela, eta falta zaiona ez dagoela dauden gauzen artean.

a) Izan ere, objekzio honi honelaxe ihardesten dio Rossetek: munduko gauzen osotasuna munduaz landako gauzen osotasuna bezain azalezina bada ere, funtsezko ezaugarri bat dute bereizgarri: beren existentzia. Lausotasun erromantikoaren eta dohatsuaren arteko desberdintasuna honetan datza: lehenbizikoak porrot egiten du ez dagoena azaldu nahian, eta bigarrenak porrot egiten du dagoena azaldu nahian. Poza beti dabil dagoenarekin atzera eta aurrera; tristura berriz ez dagoenarekin. Honen harira, Rossetek Montherlantent ateraldia gomuta du:

Ez dago emakumeak maitatzeko era bat baino: maitatzea. Beste guztia: adiskidetasuna, estimazioa, sinpatia intelektuala, maitasunik gabe, mamu bat da, eta mamu krudela, zeren mamuak baitira krudelak: errealitateekin beti konpon gintezke.

Bozkariotsua beti konpontzen da errealitateekin, zeinei buruz ezin adieraz baitezake zergatik zaizkion gozamen iturri; erromantikoa, aldiz, goibel dabil beti, irrealtasun krudelekin borrokan: hauen gainean ezin esan dezake zergatik atsekabetzen duten.

Pozaren aitzakia

Rossetek azpimarraturiko *bigarren objektzioa*, edota *be objektzioa*, sen onak pozaz duen usteen datza: poza ez dabil hutsean, badu beti zergatikoren bat. Izan ere, igurikimen zehatz bat asetzearen ondorio da oro har, nahi den horixe berorixe lortzearena: ezin ezergatik poztu.

b) Ordea, ihardesten du Rossetek, halako kasua, bitxia dirudien arren, ez da adibiderik gabea: badaude kausa oroz berex diren bozkalentziak, euforia aldiak, erabat adostezi-nak itxuraz goibelbideak baizik eskaintzen ez dituzten egoerekin —espetxea. Hara Rossetek dakargun adibide dei-garria, Micheleten haurtzaroko oroitzapen hauxe:

Oroitzen naiz egoera hartan, deus gabe, etorkizunak izu-tua, etsaia bertantxe, eta mundu guztia nitaz trufatzen be-ti, egun batean, osteguna zen, goizez, neure txabolan, su barik, guztia elurak zuritua, ogirik izango ote genuen ja-kiteke, itxuraz guztia bukatu zegoela, eta inolako itxa-ropenik gabe, hotzak pitzaturiko eskuaz haritz egurrezko mahaian (orduz geroztik beti neurekin daukat) jo eta boz-kalentzia gazte etorkizunez bete batek hunkitu ninduen.

Angelus Silesiusek arrosak ez duela zergatirik zioen. Poza ere zenbaitetan arrazoi barik ager liteke. Are gehiago, Rosseten esanetan balirudike egoerarik tamalgarrienean pozaren muina hobeki geuregana dezakegula.

Noski, ohiko poza ia beti dago zergatiren bati lotua. Baina, egia bada ere egoera egokiak bozkalentzia errazten duela, eta gozamen kausa batek gozamena sortzen ohi duela, hortik, dio Rossetek, ez da eratortzen nahitaez ho-rrela lorturiko gozamena, eragin duen kausa zehatzak agortzen duenik. Zeren kausa, halakoetan, eraginiko efek-tua baino gutxiago da; zenbait senide liskarretan ere, kri-sia pizten duten etsaitasun arrazoi adierazi agerikoek —he-rentzia batengatik eztatidak adibidez—, agerrarazi bai-zik ez dute egiten lehenagoko gorroto mordoa, eztatida-rik gabe ere bizirik liraukeena, itxuren mozturropean disi-mulaturik. Orduan errime aldarrikatzen bada ere diru ara-zoak medio heldu direla elkar gorrotatzera, egia alderan-

tzizkoa da: diru arazoak direla eta liskartu dira, aurretik elkar gorrotatzen zutelako. Ez du diru arazoak piztu gorrotoa, baizik gorrotoak diru gatazka.

Era berean, dio Rossetek, poza datzan maitasun mukurua, sakonean, pizten omen duen kausa oroz landakoa da: zenbaitetan inongo asebetetze zehatzik gabe ere ageri baita, ezustean. Horregatik hitz egin daiteke hemen dagoen efektua baino gutxiago den kausa bati buruz: zeren kausak ez baitu sortzen, baizik agerraraztera mugatzen da, «efektu» —oker— deituriko zerbait, kausaren aurretik zegoena. Spinozak dio afektu bakarrak poza eta tristura direla. Beste guztiak aldaketak dira, poza zein tristura halabeharren gorabeheren mendean daudelako gertatzen direnak. Lagun batenganako maitasuna interferentzia soil bat da, pozaren eta bestearen artean. «Maitasuna poza da, kanpoko kausa baten ideiaz lagundua». Era berean, gorrotoa: kanpoko kausa baten ideiak lagunduriko tristura.

Bozkalentzia, horrenbestez, bera pizteko edo eragozteko gorabehera bultzatzaile oroz berex dela nolabait, nabaritzen du Rossetek.

Ezein objektuk, berak bakarrik, ezin egin lezake bozkariotsu inor; edota, hobeki esanik, edozein objektuk egin lezake bozkariotsu edozein pozkor. Baina orduan objektu horrek, paradoxaz, benetan eskain dezakeena baino gehiago eskaintzen du, «objektiboki» duena baino areago.

Rossetek jakinarazten digu frantsesez esaten ohi dela munduko emakumerik ederrenak ere ez dezakeela daukana baino gehiago eman; alegia, alferrik dela errealitatek eskain dezakeena baino gehiago itxarotea. Ordea, pozak egunero gauzatzen du ezinezko balentria hori: kontua ez da errealitateari honek eskain dezakeena baino gehiago eskatzen diola, baizik errealitatek zentzunez itxaron zitekeena baino gehiago erdiesten duela.

Delfoseko auriga

Puntu hau ilustratzearren, Rossetek eskultura greko bat darabil, Delfoseko Aurigaren figura enigmatikoa, Joko

Pitikoen gurdi lasterketan garaile. Bere irribarrea aski konplexua da: badago bertan, ziur aski, irabazteagatiko kontentamendua; baina bada aldi berean, zerbait gorde bezain barea, aipatu kontentamendu hutsa ez bezalako zerbait islatzen duena.

Zuhurtasun hau era askotan interpreta liteke: interpretazio psikologikoa berez dator ia, baina, Rosseten iritziz, ez da oso konbentzigarria: heziera oneko gazte bat dugu, ikusleen zein garaituen aurrean bere garaipena apaltzeko bezain ahalke; ikusleriak, umiltasun honen kariaz, areago maitatuko du; garaituen hisia, aitzitik, areagotu egingo da ziur aski.

Hegelen interpretazioa: grekoen baretasunak ezin izan zuen asetasun biribilik erdietsi, nostalgia sekretu batek erasaten baitzuen: izan ere, gizaki grekoa, bera berez zenaz aski zuenez, gizakiari dagokion patu izpirituala bere gain hartzeko guztiz ezgai izan baitzen.

Rossetek era guztiz desberdinean interpretatzen du Aurigaren irribarrea: bertan pozaren berezko larria dakus, eta, gainera, ohiko zorionerako gertu zegoen gizon baten hunkidura, bat-batean txoil bestelakoa eta askoz ere biziagoa den zerbait sentitzen duelarik. Bere betegintzarrea ez da inperfektua: baina, gainera, perfektutasunaren aurreikuspen orori nagusitzen zaio. Eskultorearen zintzelak Aurigaren begirada atzeman du, honek irabazi izanaren zorionaz pentsatzeari utzi eta guztiz bestelakoa den zerbait sentitzen hasten den unean: bizitzea den poz osoa, bizitzagatiko zoriona, euforia arraroa, munduaren existentziagatiko alaitasuna, norbera gainera munduan izaki.

Sexu poza

Partikularretik orokorrera igarotze hau, kontentamendu soil batetik estasi kosmiko antzeko batera, arras nabarmena da, azpimarratzen du Rossetek, espezie bizidunen gozamen nagusian: sexualitatean. Sexu plazerrean nabaritzen da bereizezin duen poza ez datzala protagonistek —nahiz heroi bakarrak, Onanen dizipuluaren kasuan— bertatik lor-

tzen duten etekinean: sexu pozan badago zerbait gizabana-koaren interesa osotoro gainditzen duena, moralki zein fisikoki. Moralki, protagonistak sarritan galdu egiten du sexua-rekin, eta fisikoki ez du ezer irabazten. Izan ere, sexu poza bere kausari ihes egiten dion efektua baita, bere onuradun ustekoaz landa doan etekina. Hortik dator nolabaiteko desliluratzea poz hori sentitzen duenaren aldetik: ez baitu bertatik mozkinik lortzen. Baina bada halaber poz goren bat: bertan itxaronikoa baino askoz ere gehiago aurkitzearena. Sexu plazerrak beti agerrarazten du alde zabal bat igurikiri-ko eta erdietsiriko plazerraren artean; diogularik sexu plazer-rak lekualdatzen gaituela —banoa, banator—, alde horri buruz ari gara. Itxaroniko gozamenaren orde ez dugu goza-men biziagoa soilik, baizik batik bat bestelakoa; zeren orduan ez baita gorputz zehatz bat ageri gozamen iturri legez, baizik gorputz guztiak, bereizezinki; are existentzia oro har, supituki beti eta nonahi maitagarri legez sentitua. Halatan, orgasmoan mamitzen dena, singularretik orokorrera igarotze legez azaltzen du Rossetek, plazer partikular bat bilatze-tik unibertsal gisa sentituriko bozkalentzia lortzera.

Rossetek sexu gozamenaz dioena, noski, mamitu eta beteriko orgasmoen kasuetara aplika dakioke soilik: izan ere, sexu plazerra, maizetan, poz orokor batera bideratu bari-rik, aitzitik, etsigarri legez sentitzen da, zabaldu orde her-tsiko bagintu bezala, latindar adagioa lekuko, animalia oro aritu ostean goibeldu egiten dela dioena: *post coitum omne animal triste*. Histura hau gerta daiteke txortaldia betetzeak ez dakarrelako berez ondorioz sexualitatea, zentzurik zabal eta alaienean, betetzea. Orgasmoa sexu pozaren nahitaezko baldintza da, baina ez baldintza askia. Alegia, asegabetasun psikiko bat ager liteke, baita ohiko sexu harremanak dauz-katen lagunen artean ere. Askotariko sexu xedeak daude, koitoak-eta arras era exkaxean betetzen dituztenak.

Giza eskubideen fanatismoa

Hirugarren eta azken eragozpena, Rosseten zerrendan, aurrekoak baino kezkarriagoa apika: unibertsalera igaro

nahi izatea bera, berez litzateke susmagarria, proselitismoarekin eta fanatismoarekin pareka bailiteke, zeinetan uste bat ezin baita sentitu gizaki guztiei kolpe batez ezar dakiokeen heinean baizik. Sinesmen zein sentimenduren bat ezin bereganatu ahal izatea, baldin ordu arte sentitu ez duten beste guztiek ere onartzen ez badute, onean zein txarrean: hara fanatismoaren betiko araua. Eta Rossetek «terrorista» deritzo fanatismo hau elikatzen duen pentsaerari.

Baina, ezustean, hasieran esan bezala, giza eskubideak aldarrikatzen dituen pentsaerari deritzo hain zuzen «terrorista» Rossetek, nahiz duela bi mendez geroztik liberal eta progresista legez saltzen den; pentsamolde honen arabera, berdinak gara gizaki guztiok.

Ezer ez da, Rossetentzat, fastikagarriagoa zein penagarriagoa, itxuraz beren onuradunak direnentzat, berdintasun eta anaiatasun adierazpen hau baino: zeren, gizaki hau nire berdina delako pentsamendutik, fanatikoak berehala ondorioztatzen baitu nahitaez pentsatu behar duela neronek pentsatzen dudana, oniritzi nik on deritzodana; eta, erresistitzen bazait, odolak eta suak berehala jarriko dute arrazoibidean; ezin badut, hitza —egunkaria eta irratia, gure kasuan— kenduko diot. Lagun hurkoarengan berdin bat ikustea, beti da gutxiago mesede bat bortxa bat baino.

c) Hala ere, erantzuten dio azken objektzio honi Rossetek, eguneroko totalitarismoaren berezkoa den bizio hori, guztiz arrotza zaio pozaren orokortasunari. Bien arteko desberdintasuna honetan datza: fanatikoak, pozak ez bezala, ez du aski bere onarpen ahalmen mugatuarekin, ezin da bizi bestearen etengabeko onarpenaren bitartez baizik. Totalitarismoak defendituriko sinesmena ez da batere sendoa bere baitan; horrenbestez, fanatikoak guztizko zehazgabetasun horri bere indar guztiekin lotzen zaio, ezin baitu sendotasun serioarik aurkitu onarpen zabal baten bitartez baizik: horixe du nolabaiteko sinesgarritasuna lortzeko era bakarra; are, izate itxura soila lortzekoa. Honexegatik hain zuzen ez du totalitarismoak atzera egiten onarpen hori derriortzeko inolako bitartekoren aurrean, hil edo biziko

arazo baitu. Herriaren epaitik totalitarismoak iguriki duena ez da horrenbeste egiaren lekukotza bat, baizik existentzia lekukotza bat. Fanatismoaren nolakotasuna, dio Rossetek, ez du soilik «jende orok sinesten duenez, egia da» bezalako esamolde batek azaltzen; baizik, sakonkiago, «jende orok sinesten duenez, sinesten dudan hori *zerbait* da» esamoldeak. Laburbilduz, totalitarismoa lotzen zaion dotrina, jakintza oso batek bakarrik bete dezakeen espazio huts antzeko zerbait da (era perfektu biribilean egundo gauzatu ezina). Aitzitik, poza aski da bere baitan, eta ez du kanpoko ekarpenik behar.

Atzemundutiarrak

Azken ohar bat auzirik funtsezkoenari heldu baino lehen: mintzagai dugun poza inolaz ere ez da bereizten bizipoz hutsetik, existitzeko gozamen soiletik. Tradizio filosofiko luze batek, Platonengandik Heidegger arte, uste du, aitzitik, ez dagoela benetan gizakiarentzat eskuragarria den pozik, bizipoz soil hori, eta existitzen den gauzaki oro, «gaindituz» baizik: ez omen dago munduan objekturik, «objektiboki» desiragarritzat har daitekeenik. Rosseten esanetan, atzemundutiarren tradizio filosofiko luze horrek arrazoibide haxe darabil: poza ez da lilura hutsa; baina pozaren iturri gauzazkoaren —honaindikoaren— ziztrina aintzat hartzeak berehala ezeztatuko luke poza; beraz, esperientzia mistiko edo metafisiko bat beharko du izan. Platonek, esate baterako, hilzorian dagoen beltxargaren oihua bozkalentzia eta askatasun kantutzat hartzen du. Oro har, atzemundutiarren poz hori honainditiko ihesaldi baten gisara ageri da, haraindi iraunkor baten altzoan babesa bilatzen duena; existentzia iheskorragatiko ihesa, izaki eternal baten abarora. Platonentzat, bizitzan benetan lor daitezkeen poz iheskorrak ukatzearen ordainetan erdiets liteke benetako poza; era berean, gorputzak maitatzea, maitasun idealaren ordezeko kaxkar bat baino ez da; eta gorputz maitasunak ahalbidetzen duen giza endaren iraunaraztea, merkealdietako hilezkortasuna baino ez, izatearen betierekotasunaren kopia txar bat.

Ordea, Rossetek dioenez, bizipozak ez du inoiz izate hilezkor eta aldagaitz baten iraunkortasun eta betierekotasuna bilatzen. Alderantziz: ez dabil gogara existentzia iheskor, aldakor, bukakor batean baino, halakoxea den heinean maitatua gainera. Igaro eta aldatu egiten den denborarena da existentziaren dasta, finkoa ez denarena; bestalde, bizitzaren iraunkortasun hoberen eta ziurrena hiltzen joate horretan datza hain zuzen. Bizitzaz atsegin hartzeak, nahitaez eskatzen du hilkorra izateaz alaitzea, egonkortasun eta iraunkortasun eza deitoratu gabe. Udazkenak, Rosseten esanetan, ez gaitu liluratzen udazkena delako, baizik uda aldatzen duelako, neguak alda dezan baino lehen; bere izate berezia aldaketa horretan datza hain zuzen. Ordea, ia ezin da ikusi zertan letzakeen «bere baitako» udazkenaren lilura, Platonen dizipuluren batek irudika lezakeen eran. Bere baitako udazken bat ez litzateke egiatan batere udazken eitekoa. Existentziaren lilura ez baita neurtzen betierekotasunean esku hartze problematiko baten arabera, baizik, alderantziz, ontologoek eta metafisikoez izateari atxiki dizkioten ezaugarriekiko arrotasunaren arabera.

Rossetek oroitarazten du Ulisesez Odisean sarritan jartzan dituela aurrez aurre existentziaren kemena, nahiz iheskorrena eta miseriazkoena izan, eta hilezkortasunaren zurbila eta funsgabea, nahiz aintzagarriena izan; Kalipsok epopeiaren hasieratik beretik eskaintzen dio hilezkortasuna, baina etengabe arbuatuko du Ulisesez; era berean, Akilesen hil osteko hilezkortasuna adeitasunak bultzaturik baino ez du laudatuko: Akiles halabeharrez aurkitzen du, hilkoei egin bisita batean, eta hilezkortasunaren lehenbiziko laudorioa entzun ostean, eten egiten du Akilesek Ulises:

Ez ezak heriotza apaindu, ene Ulises prestua: nahiago nik lurraren gainean izan, baserritar txiro baten zerbitzura bada ere, idi-zaindari, hiliko hauen guztien, iraungiriko herri honen, errege izan baino.

Honelaxe laburbiltzen du aurrekoa Rossetek: bizitzearen egitate hutsak berez ezeztatu eta ukatu egiten ditu izatea eta bere zenbait atributu ontologiko, adibidez hilezkortasuna eta betierekotasuna.

Gomuten puntalakurlotasuna

Rosseten esanetan, bizitza bera bere baitan gozamen iturri bat izatea, nahiz zenbaitetan beren onuradunek bizkarra ematen dioten, horren lekukotza egitate arrunt eta eguneroko batek ematen du, hain zabaldua ezen ereduzkotzat har baitaiteke: gizaki gehienok geure oroitzapenak gogoratzean sentitzen dugun ardura bizia alegia: halako trantzean ageri dugun zehaztasunekiko arreta oso nabaria izaten ohi da, are oroitzapen horiek deus bereziki interesgarri edo pozgarri aurkezten ez dutenean: aski baita gertatu izanaz, existentzian agertu izanaz, bilaka daitezzen, bertan esku hartu zutenek geroago gogoratzen dituztelarik, eztabaidagai amaigabe; eztabaidon beroa txit bitxia begitantzen ohi zaio arrotzari, eztabaidagaia ia beti arras ezdeusa izaten ohi baita. Baina, gertatu denez, ezin ezer osotoro zehaztu gabe utzi. Hori bai, gertatzen ari zen bitartean, edo jakin genuen unean, bost axola izan zitzaizgun; baina orain, oroitzean, jasanezina zaigu entzutea egun hartan dilistak jan genituela, eta ez guk primeran gogoratzen ditugun txitxirio bikain haiek; edo Igorretako baserrira martxoaren 13an hurbildu ginela, eta ez apirilarenean; nahiz Erdi Aroko kontzilio hartan dilista batean 999 aingeru sartzen direla erabaki zela, eta ez ezin konta ahala; edo artista haren seme-alabek Joannes eta Irati izena dutela, eta ez Beñat eta Garazi; zein liburu ospetsu hark *Oraingo gazte eroak* duela izenburu, eta ez *Oraingo gazta beroak*; eta abar. Nondik dator halako ardura bizia orainaldi zenean oro har axolagabeziaz, are desatsegin lanbrotsu batez, sentitua zenarekiko? Rosseten iritzirako, gomutatzearen izaera puntalakurloak, honen, horren zein haren —existentzia osoaren— izaera sakratuaren onespena adierazten du. Halatan, oroimenaren jarduna existentziaren aldeko lekukoa dugu, gertatu eta *gero* ageri dena soilik, hori bai; iraganiko errealitatea osotoro onartu eta besarkatu nahi izatetik dator zehaztasunengatik mania; agertze, gertatze eta ezagutze hutsaren kariaz existitzen den orok hartzen duen garrantzia, oroitzeko unean onesten dugu.

Pozaren paradoxa

Heldu gara Rossetek pozaren muineko paradoxatzat duenera. Honela adieraz liteke: poza baldintzagabeko gozamena da, existentziari dagokiona; haatik, ez dago ezer existentzia baino gozamen gutxiagokorik, baldin hoztasun eta izpiritu argitasun osoz azter badadi. Garai orotan, eskarmentuak pentsamendua existentziaren aurka mintzatzera behartu du, defendaezin eta maitaezintzat hartzera. Eskarmentu hau funtsean denbora zein espazio gabezia erabakitzen da: bizitzara datorren inork ez du inolako aukerarik ez irauteko ez espazio amaigabea leku duin bat betetzeko. Orogen buru maite duguna leku-denborei dago kienez azken batean zeinen ziztrina den aintzat hartzea, filosofiaren alderik mingarriena da Rosseten iritzirako, gogeta guztiak usteltzen diren lohizuloa, filosofiaren salbamen ahalegin guztiak mendez mendez nahitaez irensten dituen putzu beltza, bizitza arrazoiaren bitartez berrerostearen, eta existentziaren ezdeusaren artean zentzuzko adostasun bat bilatzeko eginahal oro itotzen den ur uherra. (Montaignerentzat pentsamendurik arriskutsuena zen, gaitz guztiz erremediaezina, heriotza zigor baten pareko: «eritasunik ankerrena, geure izatea mesprezatzea da». Filosofia osoa, Montaigne, Nietzsche eta Gil Bera bezalako zenbait kasu bakarren salbuespenaz landa, existentziaren eta bere hauskortasunaren aurka nagusitasunez abiarazi eta garbi irabaziriko prozesutzat jotzen du Rossetek. Parmenidesengandik hasi eta Heidegger arte, gogorra izan da ageri zaigunaren aurka jaurtikiriko sutunpakada).

Alta bada: Rossetek dioenez, adostezinak dira poza eta bere zuribide arrazionala: gozamena pentsaezina da: bizi eta senti daiteke, baina ez adierazi. Ordea, poza pentsaezina izatetik ez da ondorioztatzen lilura hutsa izan dadin. Alegia, poza aldi berean ezin pentsatuzkoa eta existentea da.

Alternatiba bat aurkezten digu hemen Rossetek: edo poza existentziaren tragikotasuna ezeztearen amets iheskorrean datza —kasu horretan poza ez litzateke parado-

xazkoa, baina bai lilurazkoa. Edota nahitaez tragikotzat harturiko existentziaren baieztapenean datza: kasu horretan poza paradoxazkoa litzateke, baina ez lilurazkoa.

Rossetek bigarren alternatiba du onesten: ziur da poza tragikoarekiko adostasun paradoxazko batean datzala. Pozaren pribilegioa baita, hain zuzen, aldi berean erabat jakitun eta guztiz ezaxola izatea existentzia osatzen duten zoritxarreko. Zoritxarraren aurreko ezaxola horrek ez du adierazten kontuan hartu nahi ez duenik, baizik, aitzitik, guztiz erne dagoela bere aurrean. Ez dago egiazko pozik ez bada aldi berean oztopatua, ez badu bere burua gezurtatzen: paradoxazkoa baita poza, ala ez da poza.

Pozaren eroa, krudela, babesa

Pozaren izaera paradoxazko honetatik hiru ondorio funtsezko ateratzen ditu Rossetek:

Lehenbizikoa: poza funtsean ilogikoa eta irrazionala da. Seriosa eta koherentea izateko, beti faltako zaio argudio konbentzigarriren bat, edota soilik ezagugarria eta adierazgarria. Honexegatik hitz egiten da «poz eroaz», nahiz esaten norbait «pozez ero» dagoela. Ez dago pozik ez bada eroa, lagun bozkariotsu oro nahitaez da bere eran zentzugabea.

Bigarren: Rossetek nabarmentzen du poza nahitaez dela krudela, ez baitzaio batere ardura ez paturik ilunena, ez gertaerarik lazgarriena, ezta gogoetarik tragikoena ere. Poza ez da zorion pertsonala, ez da sentimendu psikologiko bat. Ezaxolatia da sentimendu ororekiko, sorgortasun orokor antzeko bat nagusitzen baitzaio, anestesia bihotzean. Ordea, ezaxola hau ez da inondik inora inozoa; aitzitik, guztia esperimentatu ostean baizik ezin da agertu. Pozaren eta krudeltasunaren arteko batasunak, gozamen sakon ororen berezko izaera gupidagabeak, edozein lagun nahiz gauzarenganako errazkeria sasiatseginaren arbuioa eskatzen du.

Hirugarren eta azkena: poza nahitaezko baldintza da, ez apika bizitzarena oro har, baina bai bederen arretaz gi-

daturiko bizimoduarena. Izan ere, dio Rossetek, pozezko eromenak baizik ez baitezake, paradoxaz orobat, beste eromen guztiak eragozte ahalbidetu, neurosiaren etengabeko gezurretik babestu. Ezin bizitzen jakin, poza aintzat hartzeke. Baina jakinduria hori da ahaleginik gogorrena eskatzen duena: ez baitago deus bizitza hau ongi bizitzen jakitea bezain zail.

Pozaren babesa, azpimarratzen du Rossetek, lagungarri izugarri, misteriotsu, ezagutezin bat da, are bere ondorio onurazkoak sentitzen dituenarentzat. Zeren sentitu ostean, ez baitaki pozaz aurretik baino gehiago, ez du existentziaren aldeko argudio berririk, eta erabat da ezgai esateko zergatik edota zertarako bizi den; ordea, aurrerantzean bizitza guztiz maitagarria irudituko zaio betirako.

N neurosia eta itxaropena

Errealitatera egokitzeko beste era bat ere nabarmentzen du Rossetek, zabalduena: neurotikoa. Bizitzaren osagai malurazkoak nahitaezkoak direla ezeztatzean datza; aitzitik, behin-behinekotzat ditu neurotikoak, eta piskanaka ezabatu ahal balira bezala dihardu. Deus ez da maizago ageri, deus ez da modernoagoa, errealitatera egokitzen saiatzeko era hau baino. Bihotzeko —aluko— aldizkari batean, bertako betiko batek dio: «anima zaitetz bizimoduz aldatzera. Aski da adore, adiskidetasun eta konfiantza apur batekin». Pentsamolde hau sarritan aurki daiteke filosofo ezagunen obretan. Rossetek, ordea, sorburu duen sentsibiltate izpirituala ez dela eternala azpimarratzen du, ezta giza naturari berez dagokiona. Pentsaera bereziki modernoaren berezitasuna da, eta dagokion neurosi arrunt zabalduarena. Ez dago haren aztarnarik XVIII. mendea baino lehen: zeren erreala saihestea, Ilustrazioaz geroztik hobekuntza eta aurrerabide ideien bitartez gauzatzen dena funtsean, lehenago bestelako sineskeria moldeen laguntzaz betetzen baitzen.

Itxaropena, Rosseten iritziz, neurotikoa da. Hesiodok, *Lanak eta egunak*-en, itxaropena gaitz txarrentzat hartzen

du. Itxaropenaren antza duen oro, bizio bat da, izan dadin gabezia bat, aldixartze bat, ahultasun bat: bizitzak ezin duela gehiago adierazten du, ataka erasotu eta estuan dela. Itxaropentsuarengan bizitzeko atsegina falta da, eta ordezeko indarren baten laguntza behar du; itxaropentsuak ez du bizi duen bizitza gogoko, baizik bestelako bizitza bat, hobetua, inork inoiz biziko ez duena. Itxaropentsuak ez du jadanik baliabiderik, hutsik dago, agorturik, mangata; benetako iturri bizi indarra duten osasun eta kemena dieta berezietan, botiketean eta drogetan bilatzen dituen bezala. Itxaropenaren beharretik askatzen gaituelako dugu poza indarrak handiena: bere aurrean itxaropen oro barregarri ageri da, ordezeko kaxkar.

Pozak, bizitzaren onarpen baldintzagabeak, berez dakar aldi berean giza gehiegikeria eta krudelkeria guztiak ere onartu behar izatea; beti aipatzen dute hori pozaren aurkako argudio gisa bizitzeko indarrak ez dutenek, era nahasian itxaroten dutenek baldin gizakiek eraginiko izugarrikeria eta nazkagarrikeriak atzera egingo balute —eta horretan ahalegintzea guztiz duzu zuzen eta laudagarri, noski—, aldi berean existentziaren berezko zoritxarra ere ezeztatzea lortuko litzatekeela —eta hori itxarotea guztiz duzu eri eta neurotiko. Erdietsezina den bestelako bizitza batean hobeki izango direlakoan oro etengabe aldatzeaz arduratzaren direnak, buru nahasketaren funtza den bizitzeko ezgaitasuna adierazten dute. Zentzu honetan, Rosseten ustez ideologia progresistak proiektu zozopoto samarrak dira funtsean, iradokitzen duten heinean giza arazoetan benetan konpongarri eta hobegarri denarekin batera, alegia, gaitz akzidentalaren apaltze edo ezabatzearen bitartez, mui-neko gaitzak ere konpon litezkeela, aski balitz bezala zientziaren aurkikuntzaren bat zein gizarte antolakuntza txukunagoren bat gizakien berezko izaera ezdeus eta iheskorra erauzteko; kale argiteria hobetuz minbizia eta heriotza garaitu ahalko bagenu bezala. Muina lausotze honek —muina ezin baita ukitu—, azala nabariarazteko —azala ukigarria baita—, ordainezko asebetetze haluzinatu bat ahalbidetzen du, inondik ere. Baina aberrazio sakon baten adierazpen ere bada, nahasmendu patologiko batena, arrunt

zabaldua bada ere. Eromen molde bat deritzo Rossetek, aldi berean erremediaezina baina ez benetan larria, nahiz batzuetan ingurugiroa serioski kutsa dezakeen, zenbait ideologia kolektibo honezkero xeblebre ezker abertzaleko tribu batzuetan ondino babesten den sua lekuko.

Terroristak Espainian eta geurean

Espainia aldean, «terrorista», «frantziskotar» eta «faxista» sinonimo legez darabiltzate; demagun pentsalari batek Espainiako Barne Ministerioaren mendeko hedabideekin (denak) bat ez datorren zenbait iritzi argitaratzen duela liburu batean: kazetari espainolak, orduan, salatu egingo du: «oso gaizki, hori ez da egiten, hara terrorista frantziskotar hori, faxistei arnasa ematen»; aurreko gogoeta egin duenaren dizipuluak, hauxe emendatuko du: «oso gaizki, hori ez da egiten, horra hor faxista frantziskotar hori, berriz ere terroristei arnasa ematen»; orduan hirugarren batek, *El País*-en bezala EHUn ere goiti egin nahi baitu, bere zuhaitz genealogikoa erreko du, amonaren izeba bat frantziskotarra izan baitzen zeharka —karmeldar oinutza, zehazki—, eta lehengusu bat Villasanterekin tratuan ibilia. Ondoren komuneko zulotik botako du bere burua, behinola Anaia Otsoa Legenduna besarkatu baitzuen.

Geurean, berriz, azkenaldian argitaratu den pentsamendu libururik bare, eszeptiko eta umoretsuena —erbestatuena ohi da umorerik sakonena—, *Hitzen ondoeza*, terrorista espantagarri batek idatzi du, bere egoeraren latza goiti-beheiti bozkalentzia tragikorako beti prest ematen duena. Ondoezak joarazi duen hogeita seigarren hitzak, *Alaitasunak*, honelaxe dio (Apeza: Torquemadaren oinordeko kazetaria; Groucho: Sarri):

Apez bat Groucho Marx saldatzen:

— Eskerrak eman nahi dizkizut munduari eman diozun alaitasunagatik.

Eta Grouchok:

— Nik ere eskerrak eman nahi dizkizut zuri, munduari kendu diozun alaitasunagatik. ♣

Bibliografia

- ROSSET, Clément. *La force majeure*. Minuit. Paris, 1983.
ROSSET, Clément. *Logique du pire*. PUF. Paris, 1971.
DESCOMBES, Vincent. *Le même et l'autre*. Minuit. Paris, 1979.
RENAUT, Alain; FERRY, Luc. *La pensée 68*. Gallimard. Paris, 1985.
SARRIONANDIA, Joseba. *Hitzen ondoeza*. Txalaparta. Tafalla, 1997.

Egunen
gurpilean



kultura • 97

Barcelo eta Camembert • Levi eta Semprun

ALBERTO BARANDIARAN



literatura • 103

Negurako hazkurria • Poeta bizien kluba
• Zaharraren mapak, gaztearen haizeak • Bidaien
kontaketak, kontaketen bidaia • Zakuan geratzen direnak

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI



ikuskizunak • 109

Bai Euskarari-Ez Ikuskizunari • Apoaren eremu txikian
• Albokaren begikatea • Albokaren folk berria
• Kubako uzta • Umore saila

IMANOL AGIRRE



soziolinguistika • 116

Zer da Jurilinguistika? • Nor da Eurokartaren aurka?
• Nor da Eurokartaren alde? • Eurokarta ez dela aski?

ERRAMUN BAXOK



telepolis • 121

Gara • Egunkaria • Informatikari euskaldunak
• Apatia • Liburuak

LUIS FERNANDEZ